

Auzolana zergaitik?

Gure herriak bizi dituen egoera zailak direla eta, azken egunetan territorio osoan elkarlaguntzarako talde anitz sortu dira COVID-19aren -“Coronavirus” bezala ezagututakoa- ondorioei aurre egiteko. Laguntza-sare hauek behar-beharrezkoak suertatzen ari dira langile klasearentzat, bai administrazioaren ekintzen osagarri gisa eta bai hauek heltzen ez diren lekuetako hutsuneak betetzeko.

Coronavirusaren kutxagarritasunak -langileek lan handia egin arren eta administrazioen urteetako murrizketen ondorioz- osasun-sistemaren kolapsoa eragin dezake, arrisku-taldeetako pertsonen bizitzetarako mehatxu erreala izanik. Horregatik, laguntza-sareak ekintza lokala eta elkarlan telematikoa lehenesten dute. **Auzolana, elkartasun ariketa bat eginik, pertsona hauek beharrezkoak ez diren arriskuak izan ez ditzaten sahiesteko sortu dira: protokoloak ezarriz herritarrek erantzunkizun zehatz batzuk hartu behar ez ditzaten.** Jakin badakigu beharrak anitzak direla, horregatik, norbanakoen beldur zein ziurgabetasunei aurrea hartu nahi diegu eta **herritarron erantzun solidarioa antolatu. Betiere arrisku egoeretatik salbu egonez eta coronavirusaren hedatzea lagun ditzaketen egoerak ekidituz.**

Ez da gure asmoa auzolanak gai garrantzitsu bat estaltzea: Gobernu (estatu, autonomia, zein udal mailakoak) ezberdinek, **langileen eskubide sozial eta laboralak bermatuz, gutxiengo baten interes ekonomikoen gainetik gehiengoaren bizitzak lehenetsi beharko lituzketela,** hain zuzen ere.

Burujabetasunaren alde borrokatu egin beharra dago:

- Osasun-sistema pribatua herritarron interesen alde jartzeko mekanismoa delako.
- Etxegabetzeak gelditzeko eta alokairu zein hipoteken ordainketak atzeratzeko.
- Osasun-sistema pribatua ordaintzeko aukerarik ez duten familiek ordaindutako eszedentzia izateko.
- Autonomoentzako laguntza-plana egikaritzeko; agente ekonomikoek zerga gutxiago ordainduz administrazio publikoekiko zorra handitu ez dezaten.

Gaur egungo krisiaren aurrean... antolatu gaitzen! Gehien behar duenari laguntza eskaini diezaiozun! Eta egin dezagun elkartasuna Auzolanaren osagarria esparru publikoa pertsonen zerbitzura jarritz!

Auzolana antolatzeko argibideak:

1. Prebentzio-protokolo ofizialak jarraituko ditugu, Auzolanaren markoaren baitan ezarritako jardueratarako barne-neurriekin osatuz eta osasun neurriak biderkatuz.
2. Hurrekin eta arrisku-taldeekin lan egiten dutenen pertsonen artean harreman fisikorik ez dagoela bermatuko dugu.
3. Auzoetan, auzuneetan, kaleetan... nukleo txikiagoak ezarriko ditugu harreman fisikoa duten pertsona kopurua gutxitzeko.
4. Auzolanean parte hartuko duten pertsonen kontrol zorrotza egingo dugu, arrisku-egoera baten aurrean arin erantzunez eta aurrez adostutako komunikazio protokoloa jarraituz.
5. Coronavirusarekin lotutako sintomak identifikatuz gero, Auzolanean egondako pertsonei jakinaraziko diegu eta eskumena duen autoritatearen argibideak jarraituko ditugu.